

SORGINEN BIDEA EPERLANDAKO AKELARRERA-II

Kortezubiko Matias Aranazek kontatuta 1920an

Sorginak ziren ama-alaba bi. Morroia zuten beharrak egiteko. Sarritan joaten ziren bariku gauez orraztuta polito jarrita. Morroiak ikusten zituenean han jarrita zaintza egiten zuen. Suaren azpian zuten lapikotxu baten euren unturia, eta haxe unturia egin hanketan eta esan “*txiki-txikien gainetik eta handi-handien azpitik*” eta joaten ziren. Haiek joan ziren baten, morroiak ere unturia ei zuen, baina oker aditu zituen besteen esanak eta honek esan zuen: “*txiki-txikien azpitik eta handi-handien gainetik*”.

Joan zen sasi guztien azpitik eta tantai handien gainetik, dena urrututa, Muxikako Eperlandara. Han zegoen Luzifer euren nagusia. Eurek han zuten ohitura Luziferri ipurdian musua ematea zen. Denek egiten zuten banan-banan. Morroiari ipini zioten izena Sorginbarri izan zen. Honek eraman zuen burdinezko abarkistena¹ zorrotz-zorrotz eginda. Musu egiten joan zenean haixe abarkistena sartu zion Luziferri. Honek esan zion: Sorginbarri, bizarrak gogorak dituzu.

Mutilak ikusi zuenean hau antzerki hau, esan zuen:

- *Jesus da Credo, que culo más negro!*

Hau entzun zutenean denek aldegin zuten.

Etorri ziren etxera ama-alabak, morroia ere bai. Honek gertatutakoaz parte eman zion herriko Parrokoari. Parrokoak deitu zion etxera ama-alabei, eta ondu egin zituen.

(1) Abarkistena: Abarkak josteko eztena.